

Aukeratu, osatu esaldiak eta inguratu aditzak.

- Josebak ... ipuina irakurri dio.
a) semeari b) semeei c) semeri
- Hainbat ... ez zaie gustatu gaurko filma.
a) ikasleari b) ikasleei c) ikasleri
- Nire baserriko ... artoa gustatzen zaie.
a) astoari b) astoei c) astori

Osatu olerkia hitz hauekin. Gero, idatzi hitzok pluralean:



Itsasoak niri haize,
nik haize
Haritzak niri ezkur,
nik ezkur

Txerriak niri urdai,
nik urdai
Errementariak niri igitai,
nik igitai

Txiliku, Txikimundi. Elkar (moldatua).

Erantzun galdera hauei, parentesi barruko hitzak NORI kasuan deklinatuz.

- Nori atera diozue argazkia? (txori) atera diogu argazkia.
- Nori eman dio laguntza gobernuak? Hainbat (herritar) eman dio laguntza gobernuak.
- Nori kontatu diezue sekretua? Ikasgelako (neska) kontatu diegu.
- Nori eman dizkiozue eskerrak? Herriko hainbat (irakasle) eman dizkiegu eskerrak.
- Nori ez zaio gustatu filma? Bi (ume) ez zaie fima gustatu.
- Nori erori zaio liburu hori? Eskolako (atezain) erori zaio.